

**ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSAN:**  
**PARTZUERGOKO HAUR ESKOLAK GARATU ETA BABESTU**

Idatzi honen bitartez Haurreskolak Partzuergoko langileen ordezkari sindikalon kezka azaleratzeaz gain arduraz eta konpromisoz jokatzeko eskaria egiten dizuegu batzar nagusietan bildu zareten guztioi:

- Ikasturtez ikasturte beherakada handia nabari dugu haur eskolen matrikulazioan. Beherakada hau ez da kausa baten ondorioa, askoren batura baizik. Matrikulazioaldiak berraztertzea eskatzen dugu, hezkuntza arautuan ematen den matrikulazioa deialdi orokorrean (otsaila) 0-2 bitarteko hezkuntza eskaintza argitara ateratzea.
- Matrikulazio garaietan publizitate eraginkorra egitea (prentsa, telebista, kartelak, Osakidetzako pediatria arloan...).
- Halaber ziklo honen doakotasunaren bidean, zerbitzu publikoa den heinean, familiek ordaintzen dituzten kuotak berraztertzea eta familien diru sarrerekin bat etortzen den sistema egokiagoa aztertzea, errenta aitortpena kontuan hartuz.
- Matrikulazioan familiei fidantza bezala diru kopuru bat aurreratzea eskatzen zaie, 148€ hain zuzen ere. Neurri hau bertan behera uztea eskatzen dugu.
- Bekak jasotzeko baremoak aldatzea eskatzen dugu. Honetaz gain; beken eskarien onarpena eta haurrak eskolaratzeko epeak bateratuak izan beharko lukete, familiek dirua aurreratu behar ez izateko.
- Haurreskolei balio hezigarria ematea eskatzen dugu, haurreskoletan dagoen haurrak kalitatezko heziketa jasotzen duelako. Bertan egiten dugun jardunari balioa emanaz, hezkuntzako etapa bat gehiago kontsideratuaz. Zikloaren aitortza eskatzen dugu.
- Hezkuntza eskubide unibertsala den heinean herri txikietako haur eskolek herriari ematen dioten bitzta eta zerbitzuari begira, haur eskola txikiak babestea eskatzen dugu. Honez gain, haurreskolarik ez dagoen zonaldeetan eskaintza ematea.

Gure kezka eta eskariekin bat egingo duzuelakoan elkarrekin bidea egiteko prest gaude idatzi hau izenpetzen dugun sindikatuok.

Besterik gabe jaso agur bat,

**Euskal Herrian 2014ko urtarrilaren 18an.**

